

# ALDEBAKARREKO BURUJABETZA PROZESU SOZIAL BATEN ALDE

2017 IRAILA

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA





## [SARRERA]

Esparru anitzetan bizi dugun inboluzio egoera salatu dugu ELAk eta LABek. Horren adibide dira lan- eta jendarte-eskubideen murrizketa, demokraziaren aurkako erasoaldia, protesta sozialaren errepresioa, eskumenen birzentralizazioa Espainiako Estatuan... Atzerakada hau, baina, ez da koiunturala. Egungo esparru juridiko-politikoak geure etorkizuna erabakitzeke ahalmena ukatzen dio gure herriari eta, horren ondorioz, esparru ezberdinei buruzko erabakiak ezin ditugu Euskal Herrian hartu.

Botere politikoa botere ekonomikoaren zerbitzura jarri da, elite ekonomiko baten zerbitzura. Europar Batasunean aplikatzen diren politika neoliberalak, geurean ere aplikatzen direnak, instituzioak botere ekonomikoaren esku uztea ekarri du.

Horrela bada, elite ekonomikoaren klase-proiektua gehiengo sozialari onuragarria zaion bidezko jendarte-proiektu baten gainean inposatzeko erabili da krisi finantzarioa. Krisi sistemikoaren hastapenetik salatu genuen ELAk eta LABek patronalaren eta bankaren zerbitzura jarritako ekonomia-, jendarte- nahiz lan-alorreko politikak zi-rela krisi horren beraren sortzaileak. Finantza- burbuila lehertu eta hamar urtera, orduko politika haiek ez dira aldatu, aitzitik, politika haietan sakondu da. Patronalaren eta finantza-sektorearen boterea eta irabaziak areagotzen ari dira berdintasunik ezaren, eskulanaren esplotazioaren eta sektore publikoaren devaluazioaren kontura.

Inposatu dizkiguten erreforma basatiak lan-munduko eta gizarte-alorreko prekarietatea hedatzen duen eredu bat sendotzeko erabili dituzte, neurri hauen bidez:

- Alternatibak badirela ezkutatzea, inboluzio ideologiko baten bidez.
- Alternatibak badirela ezkutatzea, inboluzio ideologiko baten bidez.
- Nazio-, klase- eta genero-zapalkuntzei aurre egingo dien trantsizio-prozesu askatzaile eta eraldatzaile bat eragozte.
- Patronalaren posizioak indartzea.

Euskal Herri osoan eredu ekonomiko eta soziala aldatzea premiazkoa dela aldarrikatzen dugu ELAk eta LABek. Eta iruditzen zaigu badela horren aldeko masa kritikoa garrantzitsua. Dokumentu honek, ELAk eta LABek Hego Euskal Herrirako (EAE eta Nafarroa) dauzkagun diagnostiko, proposamen eta konpromisoetan sakontzen du.

## [DIAGNOSTIKOA]

### **1. Lan-esparruaren, negoziazio kolektiboaren eta pentsioen erreformak: burujabetzarik eza eta prekarizazio zein pobretzea batera datoz**

PSOEk eta PPK lan-esparruan eta negoziazio kolektiboan aplikatutako erreformek laneko prekarietatea enplegu-eredu bihurtzea dute helburu. Estrategia horren parte dira lan- eskubideen murrizketak, patronalari alde bakarreko erabakiak hartzeko eman zaion boterea, negoziazio kolektiboaren eskubidearen aurkako erasoak edota lan-harremanen indibidualizazioa. Erreforma horien bidez, patronalaren beharrei erantzuten dien negoziazio kolektiboa diseinatu eta langile-klasearen sektore gero eta zabalagoen pobretze ikaragarria bultzatu da.

Zapaterok onartu, UPNk babestu eta EAJren abstentzioari esker aurrera egin zuen erreformak negoziazio kolektiboa estatalizatzeko aukera zabaldu zuen, Estatuko hitzarmenei eman baitzien lehentasuna lurralde sektorearen gainera. Negoziatio kolektiboaren estatalizazioa Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren aurkako eraso bortitza da, eta soldata apalagoak eta lan-baldintza

kaskarragoak dakarzkigu euskal langileoi. Langile-klasea pobretzeko eta enpresaburuak aberasteko tresna bat da, beraz.

Horren adibide garbia dugu CCOOk, UGTk eta patronalak EAEn sinatutako Ostalaritzako Akordio Marko Sektorialaren aurka egiteko hartutako erabakia, sektore guzti-guztietan jorratuko duten bidearen adierazle. %22,52ko ordezkartzearekin, erakunde horiek Estatuko hitzarmenari eman nahi diote lehentasuna, ostalaritzan diharduten emakumeen soldatak %50ean murriztea eragingo lukeena.

Gure iritziz, hala Euskal Herriko erakundeek nola alderdi politikoek ez diote arazo honi behar duen garrantziarik ematen. Lan-baldintzetan atzerakada ikaragarria gertatzea eta prekaritatea zein pobrezia hedatzea da jokoan dagoena. Bai eta geure burujabetza ere, hau da, geure lan- baldintzak hemen erabakitzeko daukagun gaitasuna, gure herrialdean demokratikoki aukeratutako ordezkartza sindikala errespetatuz.

Lan-eskubideen gaineko eskumen legegilea Espainiako Gorteen esku dago. Horrek esan nahi du, egungo esparru juridikoak Hego Euskal Herriari ukatzen diola eskubide horien gaineko eskumen legegilea. Gauza bera gertatzen da langabezia-prestazioak, pentsioak edo sektore publikoaren antolamendu orokorra bezalako auzi guztiz garrantzitsuekin. Alor horietan aplikatutako murrizketak, CCOOren eta UGTren babesarekin eginak kasu askotan (erretiro- adina 67 urteetara atzeratu eta pentsio berrien zenbatekoa murriztu zuen pentsioen erreformaren kasuan, esate baterako) aipatu berri dugun eredu antisozial horren parte dira.

Politika horien guztien ondorioak emakumeek jasaten dituzte bereziki. Izan ere, prekaritatea eta pobrezia egoerak handitu zein dimentsio handiagoa hartzen dute desberdintasun egoera batetik abiatzen direnen artean.

Sinetsita gaude alderdi sistemikoak (PP, PSOE, EAJ eta UPN) bat datozela aplikatzen diren politiken helburuekin, bai eta pobretzearekin zein prekarizazioarekin ere. Eta haien arteko aliantzak bat datoz politika horiekin. Gasteizko gobernuak horrexegatik babestu zituen gutxiengoaren akordioak joan den urteko uztailean, Eusko Jaurlaritzak, Confedebak, CCOOk eta UGTk sinatutako hitzarmenean argi gelditu zen moduan. Gutxiengoaren akordioei babes ematea lan-baldintzak okertzea erraztu nahi duen jarrera antidemokratikoa da. Bai eta traba egiten dien demokrazia sindikalaren eta euskal langileon erabakitzeko eskubidearen aurkako eraso ere.

Hipokrisia politiko galanta erakusten du Eusko Jaurlaritzak negoziazio kolektiborako esparru propioa defendatzen duela esateak eta, aldi berean, euskal gutxiengo sindikalarekin eta patronalarekin akordioak sinatzeak. Eduki zein helburuetan kontrajarriak izanik, jarrera horrek Estatuko negoziazio kolektiborako esparrua gurean inposatzeko estrategia zilegizatzen du, gainera.

Nafarroari dagokionez, ELAk eta LABek ohartarazten dugu, Nafarroako Gobernuak erregimenaren egiturak deseraikitze asmoa badu, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluari eutsi nahi izatea eta lan-harremanetarako eredu berri bat sortzeko borondaterik ez erakustea zentzurik gabekoa dela.

Elkarrizketa soziala delakoaren iruzurra ere —Hego Euskal Herri osoan garatu dena, bereziki Nafarroan, joan den hogeitau urteko erregimen foralaren zutabeetako bat izan baitzen— eredu horren parte da. Elkarrizketa soziala eredu neoliberalakudeatzeko tresna bihurtu da, eredu hori sostengatzen duten sindikatu zein patronalari finantziazioa eman eta euren eredu sindikala sustatuz, ELAk eta LABek ordezkartzen dugun kontrabotereko sindikalgintzaren aurrean, honek guztiak suposatzen duen perbertsioarekin.

Erreformen eskenatokia ez da amaitu. Espainiako gobernuak pentsioetan murrizketa gehiago eta lan-leggedian aldaketa berriak iragarri ditu, Europar Batzordeak, Espainiako Bankuak eta CEOEk egindako eskaerei erantzunez. EAJk Rajoyren aurrekontuei (ustelkeria kasu ugaritan murgildutako alderdi bateko presidentearen aurrekontuei) emandako babesari esker, PPren gobernuak agenda antisozial hori aplikatzen jarraitu ahal izango du, aurrekontu horiek atzerakada sozial handiak dakartzatela kontuan izanik.

## **2. Hego Euskal Herrian aplikatutako aurrekontu- eta zerga-politikak: eskumen propioen erabilpena elite ekonomikoaren onurarako**

Doitze-politikak eta egiturazko erreformak ez dira Espainiako Estatuaren monopolioa. Euskal erakundeek ere —Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Nafarroako Gobernuak— politika horiek aplikatu dituzte, eta bide beretik doaz.

Patronalaren eta botere ekonomikoen erasoaldiak administrazio publikoen boterea kontrolatzea bilatzen du, beren interesen zerbitzura bideratzeko erakundeon politikak. Era berean, langile-klaseari eta haren antolakundeei eragin-ahalmena eta presio-gaitasuna kentzen ahalegintzen dira kostatuta, irabaziak metatzeko prozesua oztopatu ez dezaten, erabaki guztietatik kanpo utziz.

ELA eta LAB, beste sindikatu eta eragile sozialekin batera, aurrekontu- eta zerga-politiken errotiko aldaketa eskatzeko mobilizatu gara, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren baitan:

- Gure instituzioek eta haiek gobernatzen dituztenek ez dute enpresa- eta kapital-errentei lotutako zerga-iruzur erraldoia eragotzi nahi, eta errenta horiek pibilegiatzen dituzten zerga-politikak aplikatzen dituzte. Europar Batasun osoan gurea da sozietateen gaineko zergarik apalena duen herrialdea. Horrela, zerga-sistemaren izaera progresiboa lan-errenten gain bermatzen da oso-osorik.
- EBren baitan, azken postuan gaude babes sozialean inbertitutako BPGren ehunekoari dagokionean eta osasun nahiz hezkuntzan egindako inbertsio publikoari dagokionez. Bruselak markatutako aurrekontu-politika neoliberala zorrotz jarraitzea da EAEn eta Nafarroan hartutako bidea.
- Hego Euskal Herrian politikak arautzeko eta kudeatzeko dauzkagun eskumenak (zerga sistema, adibidez) elite horren klase-proiektuaren zerbitzura jarri dira.

Politika neoliberal horien helburua (Espainiako Estatuan aplikatutako doitze-politiken, esaterako) lan-errentak kapitalaren esku jartzea izan da eta oso eraginkorrak izan dira eginkizun horretan.

## **3. Aldebikotasunak ez du funtzionatzen**

ELAk eta LABek garbi ikusi dugu Hego Euskal Herriko instituzioek ez dutela gure erabakitzeko eskubidea defendatzeko kemen politikorik agertu, ezta lan eta jendarte arloko politikei dagokionean ere; hori bat dator Espainiako Estatuan gertatu den atzerakada zentralizatzaileari aurre egiteko garaian erakutsi duten epeltasun politikoarekin.

Espainiako Gobernuak eskura dituen tresna guztiak erabili ditu (Auzitegi Konstituzionala, oinarrizko legeak, Estatuako aurrekontu orokorrak, azken hamarkadan Zapatero eta Rajoyk onarturiko mota guztietako murrizketa-dekretuak...) autonomia-erkidegoak (EAE eta Nafarroa barne) mendearen hartzeko esparru guztietan, gure erabaki-ahalmena kaltetuz zein murriztuz.

Horren adibide garbia dugu kupoaren akordioaren inguruko negoziazioa. Eztabai-dagai egon den auzi bat, Estatuko aurrekontuak (pobretze-politikan sakontzen duten aurrekontuak) onartzeko truke-txanpon bihurtu dute. Aldebikotasunetik urrun, argi dago Espainiako Estatuak erabakitzen duenarekiko menpekotasuna uneoro dagoela.

Gauza bera gertatu da Hego Euskal Herriko instituzioek defizit- eta zor-mugak onartzeari dagokionez, bai eta Rajoyk Espainiako Estatuko instituzio guztiei inposatu dien gastu-arauari dagokionez ere. Eskumenetan aurrera egiten lagundu beharrean, muga hauek aurrekontu- politika propioa garatzea galarazi egiten digute, doitze- eta murrizketa-politikan sakontzen dute eta Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoaren oinarrien aurka doaz.

Aipatutako alorretan ez ezik (gobernuen defizit publikoaren maila, adibidez), norabide politiko horrek beste eremu anitzetan eragiten du, halaber: sektore publikoko negoziazio kolektiboa, frackinga, instituzioen langile-kopuruari buruzko erabakiak, etxebizitzari buruzko araudia, eskola-curriculumak, irakas-orduak eta ikasgelako dagoen ikasle kopurua, euskararen erabilera udaletxeetan... Bertan erabakitako gai asko eta asko debekatu ditu erakunde politiko batek, esaterako Auzitegi Konstituzionalak.

Testuinguru honetan, Espainiako Estatuarekin aldebiko hartu-emana izatea posible dela sinestaraztea jendarteari iruzur egitea da. Existitzen den burujabetza bakarra Espainiarena da, Europar Batasunaren esparru neoliberalaren barruan. Eta posible den aldebikotasun bakarria Estatuaren aldebakartasuna onartzea da. Aldebikotasunaren diskurtsoa elikatzen jarraitzeak asmo bakarria dauka: gatazka politikoa isilarazi eta Estatuan garatzen diren politiketara egokitu nahi izatea.

Gure iritziz, honek guztiak argiki azaltzen digu Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko elite ekonomiko zein politikoen artean dagoen oinarrizko adostasuna. Eredu bera defendatzen dute, politika berak defendatzen dituzte, eta Euskal Herriko eliteari ongi datorkio gai garrantzitsuen gaineko erabakia Espainiako Estatuaren esku egotea. Horri esker, zenbait garaietan, eskubide eta askatasunen murrizketak Estuari leporatu ahal izan dizkiote, nahiz eta politika antisozial horiekin bete-betean bat etorri haiek ere. Espainiako Estatuko gobernuaren politika neoliberalarekin bat datozenek ez dute auzitan jarri nahi babesa ematen dien eredu instituzionala, eta haiekin batera agertzen dira eredu hori babesteko beren botoak beharrezkoak direnean.

#### **4.Lan- eta bizi-baldintzei lotutako gai garrantzitsuak erabakitzeko burujabetzarik ez**

Lan araudia, negoziazio kolektiboa, pentsioak, prestazio sozialak, politika ekonomikoaren norabidea, finantza-sektorea edota energia bezalako gai garrantzitsuen gaineko erabakiak hartzeko burujabetzarik ez izateak lan- eta bizi baldintzak okertzea dauka ondorioztat.

Horregatik, eremu soziolaboral nahiz sozioekonomikoan erabateko eskumen lege-gilea izango duen Estatus Politiko berria nahi eta behar dugu. Mendekotasun normatiboak pobretu egiten gaitu. Burujabetza politikorik ez izateak ahuldu egiten gaitu eta ondorioak dakartza lan-alorrean, gizarte-alorrean eta alor politikoan.

# [PROPOSAMENAK]

## **Burujabetzarik ez dagoela ikusita, zera diogu ELAk eta LABek:**

- Gure lan- eta jendarte-eredu propioa, hau da, Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Esparru propioa, bertan erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dugu. Geure aldarrikapenak eraginkorrago bihurtzeko eta, horrela, bizi eta lan baldintzak hobetu ahal izateko, beharrezkoa dugu erabaki horiek geure herrian hartzea. Horrela, eragin- ahalmen handiagoa izango dugu bizi eta lan baldintza hobek lortzeko garaian.
- Zerga, ekonomia eta gizarte alorreko politikei dagokienez, geure etorkizuna erabakitzeko ahalmen osoa aldarrikatzen dugu, honako zutabe hauen gainean eraikitako Euskal Herria eraiki ahal izateko: aberastasunaren banaketa bidezkoa, genero-parekotasuna, biosferaren babesa, euskararen eta euskal kulturaren garapena eta gure ekoizpen-sarearen garapen koherentea.
- Hala EAeko nola Nafarroako eskumenei buruz eztabaidatzen diren eremu politikoetan eskaera hori jaso dadila proposatzen dugu. Ez dugu onartuko autogobernari buruzko eztabaida elite ekonomikoaren interesei laguntzen dien estatusa zertxobait apaintzera bideratzea, funtsezko erabakiak Madrilen hartuz, elite hori eroso dagoen bitartean. Langile klasearen ikuspegitik, bai Estatutua bai Foru Hobekuntza hilda daude, eta beharrezkoa da berauek gainditzea, ez erreformatzea.

## **Horregatik guztiagatik, proposamen hauek mahai-gaineratu nahi ditugu:**

1. Politikak jendartearen gehiengoaren interesen zerbitzura jartzea. Horretarako, beharrezkoa da:

- Aplikatzen diren politiken norabidea goitik behera aldatzea, jendartearen gehiengoaren zerbitzura jartzeko, bereziki, egoerarik kaskarrean daudenen zerbitzura.
- Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren eta geure espazio sozioekonomiko propioaren bitartez, langile-klasearen interesak defendatu eta eskubideak berreskuratzeko, erabateko eskumenak eta tresna burujabeak izango dituen Estatus Politiko berria aldarrikatzen dugu (bai EAEn bai Nafarroan). Joko-arau demokratiko batzuetatik abiatuta, esparru horrek Hego Euskal Herriko langileen erabaki-eskubidea errespetatzea nahi dugu.

2. Estatus berri horren aitortzan aurrera egiteko, eredu sozial alternatibo bati bultzada emango dion burujabetza prozesu bat abian jartzea ezinbestekoa da. Burujabetza prozesu horrek, lan eta bizi baldintzen hobekuntza ahalbideratu eta erabakiak hemen hartuta ondorioak gure onerako izango direla ikusarazi behar du, jendartearen zati bat prozesura batzeko. Prozesu horrek jendearen parte-hartzean oinarritu behar du.

3. Espainiako Estatuarekiko hartu-emanen alde bikotasuna alde batera uztea. Bidegarria izango bada, burujabetza-prozesuak aldebakarrekoa izan eta osagai sozial eta mobilizatzaile argia eduki behar du. Eskumen berrien negoziaketan oinarritutako eskema agortuarekin eten beharra dago, Espainiako Gobernuak edukirik gabe uzten baitu gehiengo absolutua berreskuratzen duenean arrabola aplikatuz. Etorkizuneko marko juridikoa ezin da neoestatutismoan oinarritu, non Espainiako Estatuak duen azken hitza. Geure esparru juridiko-instituzionala askatasunez erabakitzeko eskubidea daukan subjektu politikoa izatea da gure aukera.

## [KONPROMISOAK]

**ELAk eta LABek konpromisoa hartzen dugu, honako helburu hauen alde egiteko:**

- Gure esparruko negoziazio kolektiboan adostutakoa errespetaraztea, negoziazioaren estatalizazioari aurre eginez, eta lan-harremanetarako esparru propioa osatzeko urratsak ematea.
- Politika publikoak gehiengo sozialaren interesen zerbitzura jartzea. Horretarako, nahi dugun Euskal Herriaren nondik norakoak zertzelatzen dituen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren baitan elkarlana sustatuko dugu.
- Ezkerreko aliantzak sustatu eta elkarlanean aritu. Horretarako, beharrezkoa da ezker politikoak agenda soziala lehenestea agenda soberanistaren oinarri gisa. Politikan eragin nahi dugu, gaur egun aplikatzen diren politikak eraldatzeko eta gure eskubideen okertzea zein pobrezia eragozteko.
- Estatuaren birzentralizazioak dakarren inboluzioa eta alde bikotasunaren iruzurra salatzea.
- Eskumenei buruzko gaiak lantzen dituzten instituzio esparru ezberdinetara gure gogoeta eramatea.
- Eduki sozial argia daukan alde bakarreko burujabetza prozesua martxan jartzea, estatus politiko eta instituzional berria defendatu zein lortzeko aukera emango diona jendarte osoari, orokorrean, eta langile-klaseari, bereziki.

